

**ETXEKOAK EZ DIREN ERABILTZAILE BEREZIEI
SANEAMENDU-ZERBITZUA EMATEAGATIKO
TASA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA
FISKALAREN TESTU BATERATUA**

1. Art. Foru Araua

Saneamendu-zerbitzua emateagatiko tasa Ordenantza honengatik arautzen eta exijitzen da, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 3. Sekzioko III. kapituluko 2. izenburuan xedatzen diren izaera orokorreko xedapenak betetzen dituenak.

Añarbeko Uren Mankomunitateak tasa hauek kudeatu, likidatu eta bilduko ditu bere sozietate publiko kudeatzaile den Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.ren bitartez (hemendik aurrera, AUSA).

2. Art. Zerga-gertaera

Añarbe ibaiaren urtegiko uren udal Mankomunitatearen (aurrerantzean Mankomunitatea) esparruko, hau da, Donostia, Errenteria, Hernani, Pasaia, Lasarte Oria, Oiartzun, Urnieta, Usurbil, Lezo eta Astigarragako etxeakoak ez diren erabiltzaile berezien hondakin-urak eta euri-urak jaso, garraiatu, araztu eta isurketarako saneamendu-zerbitzua emateak osatzen du zerga-gertaera.

Aipaturiko zerbitzua, Mankomunitateak bere sozietate kudeatzaile publikoa den Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.ren bidez egiten du (aurrerantzean AUSA), eta etxeakoak ez diren erabiltzaile berezien isurketei dagokienez, ondorengo alderdiak egiaztatzen ditu:

1.- Saneamendu-sare publikora hartunea egiteko behar diren baldintzak betetzen diren.

2.- Aipaturiko erabiltzaileen hondakin-uren isurketen karakterizazioa; emaria, bolumena eta karga kutsatzailearen edukia jasotzen ditu, saneamendu-sare publikoan onargarria den egiaztatuz. Saneamendu-sarea hondakin-uren ubideek eta arazketa- eta isurketa-azpiegiturek osatzen dute.

3.- Saneamendu-sare publikora egiten diren isurien parametroak une oro Isurketa-Baimenaren baldintzetara egokitzen direla egiaztatu; etxeakoak ez diren erabiltzaile bereziek isurtzen dituzten hondakin-uren bolumen eta izaeraren zaintza, ikuskapena, kontrol eta neurtzearen bidez.

Zerbitzu honek jasotzen du aldi berean, altako saneamendu-sarearen eta Mankomunitatearen titularitatekoak diren hondakin-uren arazketa eta isurketa azpiegituren egoera ona bermatzea, aipaturiko azpiegituren ustiapen eta mantentzea barne daudelarik, hala nola haien konponketa, handitze eta hobetzea behar denean.

Etxekoak ez diren erabiltzaile berezi batzuei jasoko zaizkien hondakin-urak eta euri-urak Mankomunitatearen titularitatekoak diren arazketa-azpiegituretara eramango ez diren kasuetan, eta, ondorioz, hark araztuko ez dituenean, erabiltzaile haiei emango zaien zerbitzuak jasoko du uren jasotze, garraio eta isurketa inguru-hidrikora. Erabiltzaile horiei “Arazketarik gabeko etxeokak ez diren erabiltzaile bereziak” izena emango zaie.

Kasu horietan, hondakin-uren arazketa erabiltzaile bakoitzak bere instalazioetan egin beharko du, bere ardurapean, beti ere araztuak izan diren urak ingurune-hidrikora isurtzeko kasu bakoitzean ingurune-agintaritzak finkatzen dituen baldintzak betez. Ondorioz, kasu horietan Mankomunitatearen eginbehar bakarra, hondakin-urak jaso, garraiatu eta ingurune-hidrikora isurtzeko zerbitzu-ematean eragina duten alderdiak egiaztatzea izango da.

3. Art. Sortzapena

Tasaren sortzapena zerbitzua ematen denean gertatzen da, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik aurrera.

4. Art. Zerga ordaintzearen obligazioa

1.- Ordaintzeko obligazioa jaiotzen da zerbitzua ematen den unean, beharrezkoa delarik zerbitzuaren harrera.

2.- Zerbitzu hauek ematen direla irizten da:

2.1. Zerbitzua ematen zaien etxeokak ez diren erabiltzaile berezien instalazioen hartuneak saneamendu-sare publikoan egiaztatzea, hartune-baimena eskatzerakoan, burutzerakoan edo, hura jada eraikia balego, Mankomunitateko teknikoek ikuskatzea egiten dutenean.

2.2. Saneamendu-sare publikora hartunea eginda duten etxeokak ez diren isurle berezien hondakin uren ebakuazio, garraiatze, arazketa eta inguru hidrikora isurtzea.

5. Art. Subjektu pasiboa: zergaduna

Zergadun kontzeptu gisa subjektu pasiboak hauek dira: “etxeok ez den erabiltzaile berezia” bezala sailkatua dagoen jarduera baten titularitatea duten pertsona fisikoak eta juridikoak. Helburu horrekin, edozein jarduera ekonomiko edo produktibo burutzeko erabiltzen diren lokaletan sortzen diren hondakin urak isurtzen dituenari esaten zaio etxeok ez den erabiltzaile.

Era berean, etxeok ez den erabiltzaile berezia esaten zaio, etxeok isurketa baten parekagarri diren isurketak egin ditzakeen etxeok ez den erabiltzaileari, baita ere, etxeok isurketa baten parekagarriak ez diren isurketak egiten dituenean. Dena den, etxeok ez den erabiltzaile berezizat hartzen dira, ondorengo baldintzaren bat edo gehiago betetzen dituzten erabiltzaileak:

- Beren jatorria edateko uraren sare publikotik at duten hondakin-urak, hau da, ur kontinentaletan edo itsasertzeko uretako kaptazioetan, putzuetan, iturburu, urmael eta abarretan, saneamendu-sare publikora isurtzea.
- Saneamendu-sare publikora isurtzen diren hondakin uren bolumena 100.000 m³koa edo handiagoa izatea.
- Saneamendu-sare publikora isurtzen diren hondakin uretan, substantzia arriskutsuak edo ingurumenean edo arazketa-prozesuen bideragarritasun eta errendimenduan eragin berezia izan dezaketenak aurkitzea. Helburu horrekin, hona hemen substantzia horien zerrenda bat:

Nitrogeno totala Kjeldahl (NTK)	Kloruroak (Cl ⁻)	Kromo totala (Cr)
Fosforo totala (P)	Sulfatoak (SO ₄ ⁼)	Merkurio (Hg)
Olio eta koipeak (AG)	Kobre (Cu)	Zink (Zn)
		Kadmio (Cd)
		Fenolak

6. Art. Zerga-oinarria

Tasa ezartzeko zerga-oinarria, etxeko ez den erabiltzaile bereziak saneamendu-sare publikora isurtzen dituen hondakin uren bolumena da, Mankomunitateko teknikoek dagokion hondakin uren kontrol-estazioan (HUKEn) neurtuko dutena, hala nola instalatutako bere emaria edo hondakin-urak ebakuatzeko ahalmena.

7. Art. Zerga-kuota eta zerga motak

Zerga-kuota edo erabiltzaileak ordaindu beharreko tasa bi batugaien emaitza da, honako adierazpena jarraituz:

$$\text{Zerga-kuota} = T_{(Spd+V)} + T_D$$

Non,

$T_{(Spd+V)}$ Saneamendua zentzu hertsian eta isuriaren Tasa da. Saneamendu-sarera isuritako hondakin uren jasotzea, ebakuazioa, garraioa eta inguru hidrikora isurtzea biltzen ditu, eta honek aldi berean, termino finkoa eta termino aldakorra ditu, ondorengo adierazpenaren arabera:

$$T_{(Spd+V)} = Q_i \times TF_{(Spd+V)} + V \times TV_{(Spd+V)}$$

Non:

Q_i erabiltzaile bakoitzari instalaturiko emaria, edo hondakin-urak ebakuatzeko ahalmena, AUSAk finkatua. Izaera iraunkorra du, erabiltzaile bakoitzaren zerbitzura dagoen azpiegitura aldatzen ez bada.

$TF_{(Spd+V)}$ Saneamendua zentzu hertsian eta isuriaren Tasaren termino finkoa, €/l/s-tan adierazten da.

V etxekoa ez den erabiltzaile bereziak sarera isuritako hondakin-uren bolumena, m³-tan adierazten da.

TV_(Spd+V) Saneamendua zentzu hertsian eta isuriaren Tasaren termino aldakorra, €/zent./m³-tan adierazten da.

Termino aldakor hori berdina da Añarbeko Uren Mankomunitateko erabiltzaile guztientzat, nahiz batzuk zuzenean Mankomunitateari ordaindu (etxeokak ez diren isurle berezien kasua) eta beste batzuk, berriz, dagokien Udalaren bitartez.

T_D Arazketa-tasa da. Loiolako HUAn ematen den hondakin uren arazketa-zerbitzua jasotzen du, eta honek, aldi berean, termino finkoa eta termino aldakorra ditu, ondorengo adierazpenari erantzuten dio:

$$T_D = Q_i \times TF_D + V \times TV_D$$

Non:

TF_D Arazketa-tasaren termino finkoa, €/l/s-tan adierazten dena.

Goiko terminoak Añarbeko Uren Mankomunitatearen Batzarrak bere tarifak onartzerakoan finkatzen ditu, eta Ordenantza honen 1. Eranskinean jasotzen da, urtero eguneratzen delarik.

TV_D Arazketa-Tasaren termino aldakorra, €/m³-tan adierazten da.

Etxeokak ez diren erabiltzaile berezientzat, termino aldakor hori honela adierazten da:

$$TV_D = CCC_{Fiskal} \times T_{DN}$$

Non,

$CCC_{Fiskal} = CCC_{Teknikoa}$ $CCC_{Teknikoa}$ 0 eta 1 artean dagoenean

$CCC_{Fiskal} = 0,65 \times CCC_{Teknikoa}$ $CCC_{Teknikoa}$ 1 eta 4,38 artean dagoenean (teorikoki $CCC_{Teknikoa}$ maximoa)

$CCC_{Fiskal} = 0,90 \times CCC_{Teknikoa}$ $CCC_{Teknikoa}$ 4,38 eta 8,76 artean dagoenean (4,38ren bikoitza)

$CCC_{Fiskal} = 1,00 \times CCC_{Teknikoa}$ $CCC_{Teknikoa}$ 8,76 baino handiago denean

$CCC_{Teknikoa}$ 1 denean edo handiago denean, CCC_{Fiskal} -ak ezingo du 1 baino txikiago izan.

$CCC_{Teknikoa}$ karga kutsatzailearen koefizientea da (dimentsiorik gabea)

Etxeokak ez den erabiltzaile berezi bakoitzarentzat $CCC_{Teknikoa}$ kalkulatzeko da, ondorengo adierazpenari jarraituz:

$$CCC_{Tekniko} = 0,65 \times \frac{[SST] - 50}{170} + 0,25 \times \frac{[DBO_5] - 60}{140} + 0,10 \times \frac{[DQO] - 120}{280} + K$$

Non,

[SST] isurketan esekita dauden solidoen kontzentrazioa da, mg/l-tan adierazia

[DBO₅] oxigenoaren 5 eguneko demanda biologikoaren kontzentrazioa da, mg/l-tan adierazia

[DQO] oxigenoaren demanda kimikoaren kontzentrazioa da, mg/l-tan adierazia

K isurketak honako substantziarik duenean ezarriko den koefizientea da:

Nitrogeno totala Kjeldahl (NTK)

Fosforo totala (P)

Olio eta koipeak (AG)
 Kloruroak (Cl⁻)
 Sulfatoak (SO₄⁻)
 Kobre (Cu)
 Kromo totala (Cr)
 Merkurio (Hg)
 Zink (Zn)
 Kadmio (Cd)
 Fenolak

K koefizienteak ondorengo baloreak hartuko ditu:

Parametroa	Gehienez onartzen denarekiko isurketaren kontzentrazioaren portzentajea parametro bakoitzarentzat	K
Nitrogeno totala Kjeldahl (NTK)	< % 80	0,00
Fosforo totala (P)	% 80etik 85era	0,05
Olio eta koipeak (AG)	% 85etik 90era	0,10
Kloruroak (Cl ⁻)	% 90etik 95era	0,15
Sulfatoak (SO ₄ ⁻)	% 95etik 100era	0,20
Kobre (Cu)	< % 50	0,00
Kromo total (Cr)	% 50etik 60ra	0,10
Merkurio (Hg)	60etik 70era	0,20
Zink (Zn)	70etik 80ra	0,30
Kadmio (Cd)	80etik 90era	0,40
Fenolak	90etik 100era	0,50

Substantzia horietako bat baino gehiago isuriz gero, K faktorea K₁, K₂, K₃, ...horien batuketa izango da, bakoitzarentzat banaka kalkulaturakoa.

Onartzen diren balore maximoak, parametro bakoitzarentzat, honako hauek dira:

Parametroa	Kontzentrazioa (mg/l)
Nitrogeno totala Kjeldahl (NTK)	100
Fosforo totala (P)	15
Olio eta koipeak (AG)	100
Kloruroak (Cl ⁻)	1.500
Sulfatoak (SO ₄ ⁻)	1.000
Kobre (Cu)	1
Kromo total (Cr)	4
Merkurio (Hg)	0,05
Zink (Zn)	4
Kadmio (Cd)	0,2
Fenolak	2

Isurketa-Baimen batek parametro bati ezarritako balore-muga gainditzen duen salbuespen kasuan, K faktorea Isurketa-Baimenean ezarriko da, kasu horretan CCC_{Teknikoa} ezingo delarik 1etik behera egon.

T_{DN} arazketa-tasa “normala” da, €tan edo euro-zentimotan €/m³ adierazia

Hondakin ur “normala”ren m³ bat arazteari dagokion kostua da, hots, etxeko hondakin ura, edo etxekoaren parekagarria, kontzentrazio hauek azaltzen dituena: 220 mg/l SST, 200 mg/l DBO₅ eta 400 mg/l DQO. Tasa urtero finkatuko du Añarbeko Mankomunitateak bere tarifak onartzerakoan, etxeko erabiltzaileek eta etxekoak ez diren erabiltzaile arruntek ordaintzen diote Mankomunitateari beren udalen bitartez, eta Ordenantza honen 1. Eranskinean biltzen dena, urtero eguneratzen delarik.

[Hondakin ur “normala”k, edo etxeko izaera edo etxekoaren parekagarria dutenak (kontzentrazio hauek dituena: 220 mg/l SST, 200 mg/l DBO₅ eta 400 mg/l DQO) CCC_{Teknikoa} = 1 azaltzen dute. Aipaturiko kontzentrazio baxuagoak azaltzen dituzten hondakin urek CCC_{Teknikoa} < 1 dute, ondorioz, etxeko tarifa baino txikiagoa den tarifa ezarriko zaie. HUAtik irteten den emariaren kontzentrazio berdina duten urek (50 mg/l SST, 60 mg/l DBO₅ eta 120 mg/l DQO) CCC_{Teknikoa} = 0 azaltzen dute (CCC_{Teknikoa}-k ez ditu balore negatiboak izango), kasu horretan ezarriko den tarifa, hondakin uren emariak HUaren barrutik ponpatu eta garraiatzearen kostuaren baliokide izango da].

7 bis Art. Arazketarik gabeko etxekoak ez diren erabiltzaile berezientzako zerga-kuota eta zerga-motak

Aurreko 7 artikuluan aurreikusten denaren salbuespen gisa, hondakin-urak eta euri-urak Mankomunitatearen titularitateko instalazioetan arazten ez dituzten etxekoak ez diren erabiltzaileek -arazketarik gabeko etxekoak ez diren erabiltzaileek- ordaindu behar duten zerga-kuotak edo tasak termino bakarra izango du, ondorengo adierazpena izango du:

$$\text{Zerga-kuota} = \text{TSD}_{(\text{Spd}+\text{V})}$$

Non,

$\text{TSD}_{(\text{Spd}+\text{V})}$ Arazketarik gabeko etxekoak ez diren erabiltzaile mota honi dagokion saneamendua zentzu hertsian eta isuriaren Tasa da, hots, euren hondakin-urak ez diren Mankomunitatearen titularitateko azpiegituretan arazten. Saneamendusarera isuritako hondakin uren jasotzea, garraioa eta inguru hidrikora isurtzea biltzen ditu, eta honek termino bakarra du, ondorengo adierazpenaren arabera

$$\text{TSD}_{(\text{Spd}+\text{V})} = \text{V} \times \text{TVSD}_{(\text{Spd}+\text{V})}$$

Non,

V etxekoa ez den erabiltzaileak sarera isurtzen duen hondakin-uren bolumena m³tan adierazia

$\text{TVSD}_{(\text{Spd}+\text{V})}$ “arazketarik gabeko” erabiltzaile mota honi dagokion saneamendua zentzu hertsian eta isuriaren Tasaren zati aldakorra da, euro-zentimo/m³tan adierazia

8. Art. Kenketak zerga-kuotan

Beren jatorria Udalek hornitutako edateko uretan duten hondakin uren bolumenak, inposaketa bikoitza izan ez dezaten, Mankomunitateak zerga-kuotatik kenduko du etxekoa ez den erabiltzaile bereziak bere Udalari ordaindutakoa (saneamendu eta

arazketa kontzeptuagatik), Mankomunitateak jada fakturatu baitio Udalari bolumen eta kontzeptu horiegatik.

Kenketaren zenbatekoa kalkulatzeko, erabiltzaileak Udalari erositako hornikuntzako sare publikoko edateko ur-bolumenak biderkatuko dira Udalak Mankomunitateari saneamendu eta arazketa kontzeptuagatik ordaintzen dion altako tarifagatik.

9. Art. Zerga-denboraldia eta tasak ordaintzeko era

Etxekoak ez diren erabiltzaile bereziei saneamendu-zerbitzua emateari dagokion zergaldiak urte naturala bilduko du, salbuespenak zerbitzuaren hasiera eta amaiera izango dira; kasu horietan zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da.

Nahiz zergaldia urte naturala izan, erabiltzaileek tasa AUSAri hiruhilero ordainduko diote, Mankomunitatearen sozietate kudeatzaile publikoa alegia, aurrez faktura jaso dutelarik. Faktura tasaren kitapena izaera izango da.

AUSAk, hiruhileko naturalari dagokion faktura, fakturatuko den hiruhilekoaren hurrengo hileko lehen hamar egunetan bidaliko du, eta horretarako iraungi den hiruhilekoari dagokion tasa kalkulatzeko epe horretan benetan jaso diren bolumenak erabiliko ditu; erabiltzailearen HUKEn (Hondakin-uren kontrol estazioan) instalatutako neurgailuetan neurtutakoak.

CCC_{Teknikoa} kalkulatzeko beharrezko diren: SST (sólidos totales en suspensión), DBO₅ eta DQO parametroen kontzentrazioa mg/l-tan eta K koefizientearen balorea, fakturatuko den hiruhilekoaren aurreko hiruhilekoan hartutako 24 orduko lagin konposatuei egindako azterketetan lortutako emaitzen batz bestekoa erabiliko da.

Tasa zehazki finkatzeko behar diren datuak eskuragarri ez daudenean “zeharkako balioztapen metodoa” aplikatuko da, datuak finkatzeko ondoren adierazten diren baliabide bat edo gehiago erabiliz:

- Eskuragarri dauden datu eta aurrekin garrantzitsuak aplikatzea.
- Dagokion arlo ekonomikoan datuak normalak direla zeharka egiaztatuko duten elementuak erabiltzea, beti ere alderatu behar diren ekoizpen unitateen dimentsioak kontuan hartuz
- Bakoitzaren zerga-obligazioetan jasotzen diren magnitude, indize, modulu edo datuen balorazioa, antzeko beste kasuetatik ezagutzen diren datuen edo aurrekinen arabera.

Etxekoa ez den erabiltzaile berezi bakoitzak bere Udalak hornitu dion ur edangarriaren saneamendu-kontzeptuagatik hari ordaindu dizkion kopuruak, AUSAk dagokion fakturan kenketa egin ahal izateko, udalari ordaindutako agiri edo fakturen kopiak aurkeztu beharko ditu erabiltzaileak AUSAn.

Arazketarik gabeko etxekoak ez diren erabiltzaileei dagozkien fakturetan zera kenduko da: horiek saneamendu-zerbitzua emateagatik aurrez ordaindu dituzten kopuruak eta soilik beraiek erabiliko dituzten azpiegiturak finantzatzeko erabiliko

direnak. Faktura bakoitzean kenduko den aurrerakinen zenbatekoa zera izango da, beraiek bakarrik erabiliko dituzten azpiegituren amortizazio teknikoaren zenbatekoa.

Saneamendu-zerbitzuaren hasiera eta amaiera kasuetan, Tasaren zati finkoari dagozkion hiruhileko kuotak honela banatuko dira:

- Hasiera kasuan: hasiera datatik hasi eta hiruhileko naturala amaitzen den arte igarotzen diren egunen arabera.
- Amaiera kasuan: hiruhileko naturalaren lehen egunetik hasi eta amaiera-data arte igarotzen diren egunen arabera.

AUSAk saneamendu-tasagatik bidalitako faktura ordainduko da faktura-datatik hasi eta hilabete bateko epean.

Faktura edo likidazioak errekurritu daitezke Zergen Foru Arau Nagusiak jarraituz.

Adierazitako epean faktura ordaintzen ez bada, premia bidezko diru-bilketaren prozedura irekiko da.

Premia bidezko bide-administratiboa gauzatu ahal izateko, Mankomunitateko Lehendakariak sinaturiko eta Kontu-hartzaitzak fiskalizatutako Zorpeko Ziurtagiriak gauzatze-titulu izaera izango dute.

Betearazpen-bidetik egindako diru-bilketa, Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako Diru-Bilketa Zerbitzuen laguntzarekin edota Gipuzkoako Foru Aldundiarenekin egingo da.

10.Art. Orokorrean ezarriko diren arauak

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren arabera, Ordenantza honen xede den tasari aplikagarri zaizkio: aipaturiko 11/1989 Foru Arauaren xedapenak, Foru Zerga-Arau Orokorrean eta Bilketa-Erregelamenduan arautzen diren kudeaketa, likidazio, ikuskatze, bilketa, zerga-hauste eta zigorrei buruzko xedapenak.

Xedapen indargabetzailea

Ordenantza hau indarrean jartzen denean, etxeakoak ez diren erabiltzaile bereziei saneamendu-zerbitzua emateagatiko tasa arautzea helburutzat duten maila berdineko edo txikiagoko xedapenak indargabe geratuko dira.

Azken xedapena

Ordenantza hau eta bere 1. Eranskina, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean sartuko dira indarrean, eta 2010eko urtarrilaren 1ean edo argitaratze-dataren hurrengo egunean (beranduago bada) hasiko dira ondorioak sortzen. Ordenantzak bere 1. Eranskina indarrean jarraituko du, bere aldaketa edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

1go ERANSKINA

Etxekoak ez diren erabiltzaile bereziei saneamendu-zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen Ordenantza fiskalean aurreikusten diren tasen baloreak 2018 ekitaldirako

1. Saneamendua zentzu hertsian eta isurketa Tasaren termino finkoa $TF_{(Spd+V)}$

Honela finkatzen da balorea:

$$TF_{(Spd+V)} = 273,1524 \text{ €/l/s}$$

2. Saneamendua zentzu hertsian eta isurketa Tasaren termino aldakorra $TV_{(Spd+V)}$

Honela finkatzen da balorea:

$$TV_{(Spd+V)} = 13,9234 \text{ € zent./m}^3$$

2 bis. Saneamendu zentzu hertsian eta isurketa Tasaren termino aldakorra, Añarbere arazketa-azpiegituretatik pasatzen ez diren uren erabiltzaileei dagokiena /"arazketarik gabeko") $TVSD_{(Spd+V)}$

Honela finkatzen da balorea:

$$TVSD_{(Spd+V)} = 7,3289 \text{ € zent./m}^3$$

3. Arazketa-tasaren termino finkoa TF_D

Honela finkatzen da balorea:

$$TF_D = 339,3767 \text{ €/l/s}$$

4. Arazketa normalagatiko tasa

Honela finkatzen da balorea:

$$T_{DN} = 10,7855 \text{ € zent./m}^3$$

CCC_{Teknikoa} zero bada edo zero baino txikiagoa bada, TV_D 1,08 € zent./m³ izango da.